

Pirritx eta Porrotx pailazoez eta Txan magoak umeentzako ikuskizuna emango dute asteartean

■ Ikuskizunak bi parte ditu: hasieran aparte ariko dira pailazoak eta magoa eta bukaeran batera ■ Biterin da eta bi sesio izango dira: 17:30etan eta 18:30etan ■ Sarrerak Lete liburutegian daude salgai, 4 eurotan.

DATORREN asteartean pailazo eta magia ikuskizuna izango da Hernanin, gazte-txoen pozerako: *Pirritx, Porrotx eta Txan* magorekin jolasean. Pirritx eta Porrotx pailazoez batetik eta Txan magoak bestetik bi ikuskizun

egingo dituzte, baina, bukaera denek batera emango diote emanaldiari, pailazoak eta magoak elkar hartuta.

Bi emanaldi

Jakinekoa da umeentzako ikuskizunek arrakasta haun-

dia izaten dutela bai Hernanin eta baita inguruko beste herrietan ere. Badaezpada bi sesio egingo dituzte datorren asteartean Biterin: lehenengo 17:30etan hasiko da eta bigarrena segidan, 18:30etan.

Sarrerak salgai

Sarrerak Lete liburu dendan egongo dira salgai bihar egun osoz eta astearte goizean, eta astearte eguerditik emanaldia hasi arte Biteri kultur etxean bertan egongo dira. Prezioa, 4 euro. □

■ FUTBOLA -GORENGO MAILAKO ETA EMAKUMEZKOEN LIGAKO PARTIDUAK ATZO



Gorenko mailako taldea partidua hasi aurretik. Hernanik atzo estrenatu zuen 'Bakelite' babesle berriak jarritako kamixeta.

Hernanik hortzak erakutsi bai, baina ez zion kozkarik egin liderrari

■ Tolosak 0-1 irabazi zuen, jokuan Hernani baina gehiago izan ez bazen ere ■ Partidu bukaera asko narrastu zen eta epaileak 3 jokalarik kanpora bota zituen ■ Emakumezkoen Ligan 1-1 berdindu zuen Hernanik, eta gustora...

GORENGO mailako taldeari zorte pixka bat falta izan zitzaion atzo liderraren kontra emaitza hobea lortzeko. Lehenengo denbora Hernanik kontrolatu zuen Tolosa estu presionatuta, eta gola egiteko aukera onak ere izan zituzten: Gurrutxagak area kanpotik egindako jaurtiketa Tolosako atezainak ondo gelditu zuen

24garren minutuan eta Otaegik hurrengo jokaldian erretxazean iritsitako baloia indartsu jo eta largerora bota zuen.

Gol bakarra

Tolosa garaipenaren bila atera zen bigarren zatian eta gola egin arteko minutuetan bera izan zen nagusi. Kanpo erdian baloia dotore lapurtu-

ta sartu zuten partiduko gol bakarra 25garren minutuan, eta hortik aurrera emaitzari eustera jokatu zuen Tolosak.

Partidu bukaera nahiko narratsa izan zen. Arbitroak Hernaniko jokalarik bat eta Tolosako bi bota zituen txartel gorria aterata. Jokoa asko gogortu zen bai, baina, agian pasa ere egin zen epailea.

Emakumezkoen ligan, estu Zumaiako taldeak estu hartu zuen atzo Hernani, eta ez zieten txuri-berdeei beren jokua egiten utzi. Zumaia aurreratu zen markagailuan lehen zatian, eta berdinketaren gola Joana Grijalbak egin zuen erretxaze bat aprobe-txatuta. Hernaniarrak gustora zeuden emaitzarekin. □

■ BOLEIBOLA

EHU-Hernanik gaur du estreinako partidua Lehen mailan

GAUR hasiko du denboraldia EHU-Hernanik Kantabrian, Mazcuerras Mozagro herrian, eguerdiko 13:30etan. Bertako taldearen kontra orain 3 bat urte jokatu zuten hernaniarrek eta esperientzia handiko jokalariek badituztela esan digute. Hala ere, Hernaniko talde gaztea punta puntan dago eta gaur irabazteko aukera badute. □

■ WATERPOLOA

Gipuzkoako Liga, gaur Kiroldegian

ATZO Euskal Herriko ligan jokatu gaur Gipuzkoako Ligako partidua du waterpoloko lehen taldeak. Kiroldegian goizeko 12:00etan, Tximistarriren kontra. □

KAXKO ELKARTEA

Asteartean bilera dago Alde Zaharreko obren inguruan

KAXKO auzo elkarteak deituta bilera dago datorren asteartean, 20:00etan Biterin, Alde zaharreko obren inguruan hitz egiteko. Kardaberaz kale berriari inaugurazioa noiz egin, Plaza Berriatik Zinkoenarako piboteen kontua zertan den eta obren 3garren faseari buruz hitz egingo dute. Manuel Fraile Hiri-gintza Zinegotzia eta Udal Arkitettoa bilerara joatekoak dira. □

Ohialume dantzalekua gaur irekiko da

OHIALUME dantzalekuak gaur irekiko du dantza denboraldia. Aurtent 60 urte beteko ditu dantzaldiak. Aurtengoari hasiera Trakets taldeak emango dio, 19:30etan. □

**SANTA BARBARA**
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 306 - HDI,	aire egokitua	SS-BF
Volvo 850	TDI	SS-AW
R-Megane Coupe Sport	1.4	SS-BJ
Citroen AX	5 ate Diesel 1.4	VI - L
SEAT Ibiza -	3 ate Diesel 1.8	SS-AJ
Opel Corsa	5 ate 1.2	SS-AK
Ford Courier	Diesela	SS-AS
Renault Express	Diesela	SS-AS
Mercedes Furgoneta	Diesela	SS-AH
Land Rover luzea	Diesela	eta hainbat kotxe merke.

AMEGAR, C. B.
etxe tresnak
altzariak



Bisita ezazu gure web orria eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net

Txirrira kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603



Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:

RIP-CURL, BILLABONG, REEF, ASTORE, ADIDAS, BANANA MOON,...

Marka berriak ekarri ditugu:

QUIKSILVER eta ROXY

Iritxi da **udazken** eta **neguko** arropa.

ZATOZ ETA IKUSI

Plazaberri 2, HERNANI
Tel.: 943 33 12 50

HERNANI INSTITUTUA

Emakumeentzat informatika eta langabetuentzat internet ikastaroak

■ Lan mundutik aparte dauden 35 urteko emakumeentzat dira informatikako 2 kurtso, eta internetekoa langabetuentzat ■ Kurtsoak urriaren 9an hasiko dira.

LAN munduan sartu gabeko 35 urtez gorako emakumeentzat eta langabetuentzat informatika ikastaroak antolatu dituzte Hernani Institutuan. Teknologia berrietara egokitzeko zailtasunak dituen sektoreei zuzenduak dira ikastaroak eta Gipuzkoako Diputazioa, Emakunde, Egailan eta beste zenbait erakunderen laguntza dute. Ikastaroen helburua da jendeari lan mundura sartzeko bidea erraztea

batetik eta mundu guztiak teknologia berrietara egokitzeko aukera izatea bestetik.

Egunean 2 ordu

Emakumeentzako bi kurtso daude: Emaweb kurtsoa 24 ordu internet eta 2 ordu lan mundura egokitzeko klaseek beteko dute. Emaweb+ kurtsoan 40 ordu informatika eta 12 ordu lan-mundurako prestakuntza emango dira. Langabetuentzako kurtsoetan, be-

rriz, 16 ordu internet emago dira. Klaseak egunean 2 ordukoak izango dira, arrastaldez Karmelo Labakan (EPOn). Kurtsoak datorren asteazkenean dira hastekoak.

Emakumeen klaseetan izen emateko Diputziara deitu lehena 900 10 10 21 eta Hernani Institutura gero 943 551188. Langabetuen kurtsoan izen emateko Hernani Institutura deitu. Dudak argitzeko 943 551958 telefonora deitu. □



105 umek egin dute aurtien Jaun-hartzea Hernanin.

Katekesirako izen ematea datorren astean

■ Ikasle berriek astelehen, astearte eta asteazkenean dute izen ematea, eta lehendik dabitzanek hilaren 14tik 18ra bitartean.

JUAN Bataiatzailea eta San Jose Langilea parrokiek katekesirako izen ematea zabaldu dute. Aurtien hasiko diren 6 urteko ikasle berriek datorren

astelehen, astearte edo asteazkenean eman behar dute izena Elkano kaleko edo Florida auzoko lokaletan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara.

Lehendik klaseak hartzen ari direnek, 7-14 urte artekoek alegia, urriaren 14tik 18ra bitartean eman behar dute izena. □

HORTZ KLINIKA
Garmendia

Odontologia orokorra
Txirrita kalea 13 - 1.ezk.
Tel.: 943 55 34 92

LAUTXIMENETA
— o k i n d e g i a —
k a f e t e g i a —

Gaur bete dugu urtebete.
Eskerrak eman nahi dizkiegu, bezero guztiei egin diguzuen harreragatik.
Perkaiztegi 4 - Tel. 943 334 252
(atletismo pista ondoan)

MARI F&H
ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkologa 17
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI

■ ERRUGBIA

Lehen taldeak 24-7 irabazi zion Donibane Lohitzuneko talde gazteari

■ Bigarren taldeak ere Donibaneko taldearen kontra jokatuz irabazi zuen eta 21-0 galdu ■ Liga datorren astean hasiko da.

Atletiko SS taldea ez zen azaldu eta Hernaniko bi taldeek Donibane Lohitzuneko 21 urtez azpiko taldearen kontra jokatuz irabazi zuen eta 21-0 galdu. Liga datorren astean hasiko da.

Iparaldekoak, baina, Hernaniko lehen taldeak erakutsi zuen maila altuagokoa zela.

Datorren astean hasiko da liga Hernaniko bi taldeentzat eta jokalaria ari dira joku puntua hartzen. □

ZINEA BITERIN

‘Peter Pan II’ eta ‘Hombres de Negro II’, gaur

BITERI kultur etxean zinea izango da gaur, gaztetxoentzat eta nagusientzat. Gaztetxoentzat Peter Pan II botako dute arratsaldeko 17:00etan. Helduentzat Hombres de Negro II, arratsaldeko 19:30etan. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Gabonetako loteria, bazkideentzat

TXANTXANGORRI elkarteak gabonetako loteria ateratzen du, eta dagoeneko salgai dago bazkideentzat. Behin bazkideek hartu dutenean gainontzekoek ere izango dute erosteko aukera. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
►Taxiak: 943 550093	►Egunez: Etxebeste
►Udaltzaingoa: 943 333288	Elkano 2
►DYA: 943 464622	☎ 943 552087
►Autobusak: 943 556662	►Gauetz: Etxebeste
►Anbulatorioa: 943 006666	Elkano 2
►Jokalaria anonimoak: 943 331103	☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

Artzai txakurrak oparituko nituzke. ☎ 943 55 63 43

Neska bat klase partikularrak emateko eskeintzen da, arratsalde nahiz larunbatetan. ☎ 669 74 15 91

Neska gazte bat behar da 2 haur zaintzeko arratsaldetan. ☎ 943 55 10 92

Gela bat alokatzen da klase partikularra eman, bulego lanaka egin, ☎ 943 55 10 92

Hernani Institutua
A. Iturriaga - K. Labaka

LANGILEEN FORMAKUNTZARAKO IKASTAROAK ETA LANGABETU ETA EMAKUMENTZAT (EMAWEB) INTERNET IKASTAROAK
%100 ean HOBETUZek SUBENTZIONATUAK

Ikastaroak	Orduak	Hasiera	Amaiera
FABRIKAZIO MEKANIKAKO ALORRA			
Fabrikazio planoen interpretazioa	45	02/10/14	- 02/06/11
Cad-Autocad	45	02/10/21	- 02/11/02
Cad-Autocad	45	02/11/18	- 02/12/11
Cad-Autocad	45	03/01/13	- 03/02/06
Cad-Autocad	45	03/03/10	- 03/04/02
Kalitate Kontrola	40	02/11/25	- 02/12/16
Kalitate Kontrola	40	03/04/28	- 03/05/20
Elektroneumatika	30	02/11/04	- 02/11/19
Hidraulika	40	03/01/07	- 03/01/29
Mekanizatu prozesuak	40	03/01/13	- 03/02/05
CNC tornuan programaketa eta eragiketa	40	03/03/10	- 03/04/02
Makina osagarriak	60	03/05/05	- 03/06/05
ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA ALORRA			
Instalatzaile karneta ateratzeko prestakuntza	60	02/10/14	- 02/11/18
Automatismo programagarriak	60	03/01/27	- 03/02/27
Inst. Domotikoen disein. eta konf. Sist. Zent.	50	02/11/06	- 03/04/09
Instal. Domotikoen Disein. eta konf. BUS EIB	65	03/05/07	- 03/06/12
Antenen instalaz. montaia eta mantenim	30	03/03/17	- 03/04/01
Automatismo elektroteknikoak	40	03/03/17	- 03/04/08
INTERNET IKASTAROAK- emaweb eta oinarritzko informatika			
Emaweb (emakumeak)	26	02/10/09	- 02/10/23
Emaweb (emakumeak)	26	02/10/24	- 02/11/22
Oinarritzko informatika (Langabetuak)	16	02/10/09	- 02-10-17

Langileentzako Formazio Jarraiaren ikastaroak astelehenetik ostegunera emango dira 17:30etatik 20:30etara. INTERNETETeko ikastaroak ordutegi ezberdinetan emango dira. Informazio gehiago 943 55 11 88 deitu - Fax: 943 55 22 71
e-maila: hernani@hernanibhi.hezitek.net